ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

ESP.	**2021IPLE0005**
ATALA.	**IDAZKARITZA**
GAIA	**ALBIZTURKO UDALEKO OHIKO BILKURA**

2021-07-27ko UDALEKO OHIKO BILKURA

Albizturren, 2021eko uztailaren 27an, arratsaldeko 19:45etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, Udaleko ohiko batzarra egin da, Alkate Iñaki Orbegozo Arrospide jauna duela.

BERTARATUAK:

- Iñaki Orbegozo Arrospide
- Alazne Urkizu Galarraga
- Larraitz Ezeiza Artola
- Aingeru Galarraga Barandiaran
- Mikel Galarza Arrue

BERTARATU EZ DIRENAK:

- Aitziber Orbegozo Arrospide
- Unai Dorronsoro Olarra

Udaleko idazkari kontu-hartzailea:

- Oihan Ostolaza Arruabarrena

AZTERGAIAK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA
2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA
3. 2020KO KONTU OROKORRAREN BEHIN BETIKO ONARPENA
4. UDALEKUEN BALORAZIOA
5. OSTATUA USTIATZEKO PROPOSAMENEN AURKEZPENA
6. ELIZA INGURUKO URBANIZAZIO PROIEKTUAREN OBREN LIZITAZIOA
7. HONDAKINEN BILKETA SISTEMA
8. GALDERA ERREGUAK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA

2021-06-08ko akta aho batez onartu da.

2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

2021eko 54 eta 67 bitarteko dekretuen berri eman da.

3. 2020KO KONTU OROKORRAREN BEHIN BETIKO ONARPENA

Kontuan harturik jende aurrean egon den epean ez dela inolako alegaziorik izan, Osoko Bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- 2020ko kontu orokorra onartzea.

Bigarrena.- TVCP/HKEE-ra bidaltzea.

4. UDALEKUEN BALORAZIOA

Aurtengo udalekuen balorazio positiboa egin da; aurreko urteetako haur kopurura itzuli da (iaz oso haur gutxi apuntatu ziren) eta nolabaiteko normaltasuna berreskuratu da (nahiz eta oraindik ez izan erabatekoa).

Gurasoen iritzia ezagutzeko inkesta bat pasa zaie, eta 18 gurasotik 10ek erantzun dute.

Erantzun duten gurasoek ere, orokorrean, aurtengo udalekuen balorazio positiboa egin dute.

Datorren urteari begira, irteerak antolatzeko nahia azaldu dute gehienek, eta iraupenari dagokionez, 5 guraso 4 astera luzatzearen alde agertu dira, eta beste 5ek, gaur egun bezala 3 aste mantentzea hobestu dute.

Inkestaren emaitza gurasoen artean zabalduko da eta datorren urteko udalekuen inguruan hausnartzen hasiko gara guraso elkartearekin.

5. OSTATUA USTIATZEKO PROPOSAMENEN AURKEZPENA

Uztailak 21ean, asteazkenean, amaitu zen Ostatua ustiatzeko proposamenak aurkezteko epea, eta proposamen bat jaso zen udaletxean eta sarrera eman zitzaion.

Bigarren batek telefonoz proposamena aurkezteko borondatea azaldu zuen, baina azaldu zitzaion ez zela nahikoa e-mailez aurkeztea, eta beharrezkoa zela erregistro elektroniko bidez edo udaletxean aurkeztea.

Ane oporretatik itzultzen denean argituko dugu e-mailez edo erregistro elektroniko bidez zerbait aurkeztu duen.

Modu egokian aurkeztu diren proposamenekin pleguetan jasotako prozedura jarraituko dugu.

6. ELIZA INGURUKO URBANIZAZIO PROIEKTUAREN OBREN LIZITAZIOA

Obra Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman publikatu zen, baina eskaintza aurkezteko interesa zuten 2 enpresak arazoak izan zituzten Plataformarekin eta ezin izan zuten ezer aurkeztu epearen barruan.

Plataformako teknikoei arrazoia galdetu ondoren, obra publikatzearekin batera espediente bat ireki behar zela azaldu ziguten, eta horregatik ezin izan zutela 2 enpresa horiek eskaintzarik aurkeztu.

Epea igarota zegoenez, espedientea ireki, obraren eskaintza berriz publikatu eta epeak hasieratik kontatzen hastea erabaki zen.

Era berean, interesa agertu zuten 2 enpresei erabakiaren berri eman zitzaien.

Abuztuaren 9an 14:00tan bukatzen da eskaintzak aurkezteko epea eta irailak 1ean hasiko gara plika irekierarekin.

Asmoa iraila amaitu baino lehenago obrarekin hastekoa da, urte amaierarako bukatzeko.

7. HONDAKINEN BILKETA SISTEMA

Gaur egun dagoen hondakinen bilketa sistema ezin da mantendu, legeak ez dituelako onartzen konpostagailu handiak.

Herrian 2 konpostagailu txikiago jartzea erabaki zen, baina Albizturko herrigunean harkaitz asko dagoenez, teknikoki zailtasunak daude konpostagailua jarri eta bertan sortzen diren likidoak filtratu eta konpostatze prozesua egoki egiteko.

Ondorioz, organiko eta errefusarentzat edukiontziak jartzeak dirudi irtenbide egokiena, nahiz eta garestiagoa izan.

Gaur egun herriguneko etxebizitzek soilik ordaintzen dute hondakin organikoengatik (atez ate biltzen da), eta zalantzak daude organikoarentzat edukiontziak jartzen direnean nori kobratu behar zaion gainkostu hau, etxebizitza guztiei edo herrigunekoei soilik.

Gaiari buelta batzuk eman eta iraileko Osoko Bilkuran erabakitzekotan geratu gara.

8. GALDERA ERREGUAK

- Marea Gaineko Bidearen Publifikazio Hitzarmena: Albizturko Udalak bilera bat deituko du lur jabeekin egoeraren berri eman eta azken erabaki bat hartzeko. Publifikatuko litzatekena bide nagusia soilik denez, abokatuarekin argitu egin behar da bide nagusi hortatik ateratzen den bigarren mailako bide bateko lur jabeak beto eskubiderik baduen.

ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

- <u>Azarola Goikoa-ko errepidea:</u> Idazkariak azken txostena aurkeztuko du datorren Osoko Bilkuran jarraituriko prozedura, eginiko tramiteak eta ondorioak azalduz, eta Osoko Bilkurak azken erabakia hartuko du.

- <u>Apaiz etxea:</u> Dirudienez Gipuzkoako Eliza prest dago Albizturko apaiz etxea saltzeko, eta komeni da ahalik eta azkarren bertako ordezkaritza batekin bilera egitea gaiari buruz hitz egiteko.

Osoko bilkura, 21:15tan eman du amaitutzat Alkateak eta bertan azaldutakoa jasoa gera dadin honakoa sinatzen dut.

Albizturren, 2021eko uztailaren 28an

72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)

Firmado digitalmente por 72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)
Fecha: 2023.10.25 12:04:19 +02'00'

OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J

Firmado digitalmente por OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J
Fecha: 2023.10.26 09:02:08 +02'00'